



BARREN

TOKIKOM



Begia Estatu Batuetan

Janire Egaña



Ciriaco Azkoaga Ubera

2020ko urriaren 17an hil zen, 73 urte zituela.

*Isiltasunean joan zara gure artetik,
baina hain gustuko zenituen mendi
eta basoetan egongo zaren esperantzan bizi gara.
Beti egongo zara gure bihotzetan.*


Etxekoak



Simon Uranga Etxeberria

2020ko urriaren 8an hil zen, 86 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

Maitasunez, beti gure bihotzetan.



I. URTEURRENA

Juan Albarran Martinez

2019ko urriaren 22an hil zen, 77 urte zituela.

*Zure irribarre goxoa eta maitasuna
betirako izango dira gure artean.*

Familia



X. URTEURRENA

Miguel Moreno Vicente

2010eko urriaren 24an hil zen, 78 urte zituela.

*Gure ondotik joan zara,
baina betiko zaitugu gure bihotzean.*

Familiakoak



“Futbolean jokatzeko dut eta talde guztiak parte hartzea erabaki dugu, arigune moduan; batzuk Ahobizi izango gara eta Belarriprest besteak.”

- Olatz Altzerreka -

Olatz Altzerreka Ahobizi



“Ahobizi izatea aukeratu nuen lehenengo edizioan, nire ama hizkuntza euskara delako eta euskaraz hitz egitera ohituta nagoelako. Nire inguruan gainera baneukan euskaraz hitz egiteko eta euskaraz entzuteko prest zegoen jendea, eta aukera egokia iruditu zitzaidan. Ni ondo moldatu nintzen, garai hartan nire in-

guruan neuzkan lagunak euskaldunak zirelako. Familian ere euskaraz egiteko ohitura daukagu, eta kalean ere euskaraz bizi naiz gehienbat. Aurten ere hartuko dut parte. Futbolean jokatzeko dut eta talde guztiak parte hartzea erabaki dugu, arigune moduan; batzuk Ahobizi izango gara eta Belarriprest besteak. Ilusioz gaude taldean eta uste dut ondo moldatuko garela”.

Pepi Etxaniz Ahobizi



“100%ean euskaraz bizi naiz ni eta Ahobizi izango naiz, dudarik gabe. Euskaraz jaio nintzen baserrian, euskalduna naiz, euskaraz bizi naiz, eta nire ingurukoak ere euskaraz bizitzea nahi dut. Niri euskaraz egin nahi ez didan jendea onartzea kosta egiten zait, gainera, euskaraz egiteko gaitasuna baldin badauka,

behintzat. Batzuk badira kapaz, baina atzera egiten dute, eta horrek amorrua ematen dit. Ni saiatzen naiz beti euskaraz egiten, tabernetan, erosketetan eta leku guztietan, eta euskaraz ez dakienari erakusten saiatzen naiz, gainera. Euskaraldia bezalako ekimenak sarriago egin behar direla iruditzen zait, jendea etorri dadin euskarara”.

Mikel Leon Belarriprest



“Euskaraz hitz egiteko arazorik ez dudan arren, gehiago egiten dut gaztelaniaz, eta horregatik Belarriprest izatea erabaki nuen aurreko edizioan. Gaztelaniaz hitz egiteko ohitura daukadan jendearekin lehenengo hitza ere euskaraz egitea iruditzen zitzaidan bereziki zaila, ohitura horiek aldatzea oso zaila delako. Belarriprest

izanda beraiei ematen nien aukera niri euskaraz egiteko eta horrela errazagoa izan zen. Ondo moldatu nintzen, eta aurrez gaztelaniaz hitz egiten nuen batzuekin euskaraz egiteko aukera eman zidan ariketak, eta batzuekin horrela jarraitu dut gainera. Egia da txapa kendu ostean batzuekin lehengora itzuli naizela berriz, baina laneko batzuekin mantentzen dut euskaraz egiteko ohitura”.

Igor Torres Belarriprest



“Kuadrilla erdalduna daukat, eta gaztelaniaz hitz egiteko ohitura dut jende askorekin, horregatik aukeratu nuen Belarriprest izatea. Emaztea euskalduna da, baina erdal giroan ezagutu genuen elkar eta erderaz egiteko ohitura daukagu gure artean. Bi ume ditugu eta umeekin dena egiten dugu euskaraz, eta haiek aurrean

daudenean ere ahalegintzen gara gure artean euskaraz gehiago hitz egiten, baina ohiturak aldatzea oso zaila da. Niri euskaraz egiten badidate, euskaraz erantzuten dut eta whatsapppe ere euskaraz komunikatzen naiz batzuekin, idatziz ondo moldatzen naizelako, baina ahozkoan gaztelaniarako joera daukat. Dena dela, euskaraz bizi nahi dut eta saiatuko naiz euskara gehiago erabiltzen”.





ANE ASTIAZARAN

Itzultzailea

Baliabide kontua ala prestigio kontua?

tea otu zitzaidan, azken baliabide gisa, ezer topatzeko esperantza handirik gabe. Eta hara non, kontzeptua argi eta garbi azaltzeaz gain, euskaraz informazio ugari aurkitu nuen, baita neure burua lotsaraztea ere.

Zer dela eta egiten ditugu bilaketak gaztelaniaz? Zergatik ez da aukera bat Interneteko bilaketak euskaraz egitea? Aurkitzea espero dugun informazio kopurua soilik ote da horren kausa? Edota ez gara fio euskarazko informazioarekin? Pentsa daiteke gaztelania kalitatearekin lotzen dugun neurrian lotzen dugula euskara sasi-informazioarekin? Gogora ditzagun fisika kuantikoa euskaraz azaltzeko ustezko ezintasuna, me-

diku on eta euskalduna izateko ustezko bateraezintasuna, eta euskara alde batera uzten duten beste horrenbeste egoera. Esan gabe doa ez dugula bilaketa oro gaztelaniaz egiten, tokian tokiko berriak, gertaerak, erreferentziak... euskaraz ere bilatzen direlako, baina zergatik bazterten dugu hasieratik euskara kantitate eta kalitate handiko informazio orokorra bilatzeko tresna gisa?

Ez dugu besterik: ohiturak aldatu edo gure kontraesanekin bizitzen ikasi behar dugu. Bitartean, ostiralean Sutegixan izandako tertuliara joateko aukerarik izan ez bazenuten, ibili kuxkuxean Interneten, *pinkwashinga* zer den argi eta garbi ulertuko baituzue bilaketa euskaraz eginda.

“Zer dela eta egiten ditugu bilaketak gaztelaniaz?”

Zergatik ez da aukera bat Interneteko bilaketak euskaraz egitea?”



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA
Euskarazko Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

barren.publi@elgoibarkoizarra.eusbarren@elgoibarkoizarra.euswww.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zaloa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► ZORIONAK

Lehen mailako beharra da biontzat kultura. Literaturzaleak gara, baina zuk gaztelaniaz jaso zenuen eskola, eta gaztelaniaz erraztasun dezentekoarekin egiten duzuna zaila(goa) zaizu euskaraz. Ni, aldiz, umetatik euskaraz irakurtzen ikasi duten belaunaldikoa naiz, eta gehiago irakurri dut euskaraz. Hor aldea. Horixe esan nizun apirilean, euskaraz irakurtzeari gusturik hartu ezin zeniola esanez idatzi zenidanean: normala zela; zaletuko zinela erdaraz adina irakurtzerako. Eta beste ahalegin bat egingo zenuela erantzun zenidan, sinetsita zeundelako mundu bat galtzen ari zinela. 'Irakurri Miñan. Gustatuko zaizu', bota nizun. Eta egun gutxiren buruan mezua idatzi zenidan esanez hunkitu egin zintuela liburuak eta pozez ezin kabiturik zeundela estreinakoz euskarazko nobela bat irakurtzea lortu zenuelako. Geroztik, *Aitaren etxea* eta *Basa* irakurri dituzu. Eta orain, neu nago pozarren.

Orain hurrengo, martitzenean, *Mendimenez* eta *Dendaostekoak* liburuen azalen argazkia bidali zenidan wha-

tsappez. "Gabon! Bi liburu erosi ditut", zenion mezuan. Eta biharamun goizean zure beste beste mezu bat nuen eskuko telefonan: 'Ze gustura nagoen *Dendaostekoak* irakurtzen. Pasada bat da. 1:30ean itxi dut liburuak. Erdia irakurri dut". Ez dakizu ondo zer nolako poza eman zidan zure mezua irakurtzeak. Zailena egin duzu, eta zoriondu nahi zaitut hemendik, oraintsu arte aldizkari hau zelako euskaraz irakurtzen zenuen argitalpen bakarra. Oso harro nago zutaz. Gozatu, euskaraz ere nahi beste material daukagu horretarako-eta.

A.A.

► GERRA ZIBILAREKIN ZERIKUSIA IZAN ZUTEN PERTSONA HAUEN SENIDEEN BILA GABILTZA

1936ko gerran ibilitako pertsona hauen senideen (edo informazio) bila gabiltza: Mariano Uriarte, Maximo Sasieta Otaño, Jose Alberdi Lizundia, Juan Zuluaga Barrenechea, Pedro Urberoaga Intxorbe, Tiburcio Beristain Berriozabal, Marcelino Aranburu Gabilondo, Antonio Pagola San Sebastian, Manuel Landa

Exteberria, Evaristo Saez Ibarra Barrutia, Julian Sertucha Osoro, Urbano Arriaga Alcibar, Benito Unzueta Unzueta, Sebastian Otegi Olaizola, Angelita Lizaralde, Simon Espin eta Enrique Ruiz-Poveda.

Errepublikara garaiko eta frankismo garaiko argazkien bila ere bagalbiltza. Gurekin harremanetan jartzeko: elgoibar1936@gmail.com posta elektronikoa edo 605 772 285 telefono zenbakia. Eskerrik asko.

Elgoibar1936

aldaz
hortz klinikak
RPS233/13
Tel.: 943 366 377
San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

NATUR HOUSE
Ainara Iriando Ansola
GIZA ELKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA
Toribilo Etxebarria, 22
Elbar
677 551 850

fisio&mas
Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea
Trenbide kalea, 15
943 740 191 / 607 953 028
www.fisio-mas.com
RPS 177/12

RPS 183/12
Uzuri
optika audio
Elgoibar
Tel.: 943 740 359
Deba
Tel.: 943 192 192

FUB Fernando
Urizar
Barandiaran
R.P.S.: 32/17
Medikuntzan doktorea
Psikiatrian espezialista
Psikoterapia psikoanalitikoa
Psikosomatika
Ego-Gain kalea, 18-1A (Elbar)
Bailen kalea, 9, 1. ezk. (Bilbo)
furizarf@yahoo.com
615 715 404

leku edero
hortz klinika
RPS 171/12
Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Enparantza, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053

federópticos
ikus
RPS 65/07
San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

RPS 271/12
ainhoa
fisioterapia
Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar
943 531 953
669 565 745

Mankomunitateak kargu hartu die zabor poltsak edukiontzi kanpoan uzten dituztenei

Edukiontzi kanpoetan lagatzen diren zabor poltsa kopuruarekin kezkatuta agertu da Mankomunitatea. Are, zabor poltsak edukiontziit kanpora lagatzea arau haustetzat jasoa dagoela azpimarratu du eta 300 eurora arteko isunak jarri ahalko lituzkeela ohartarazi. Hala ere, zehaztu du ez dela euren asmoa isunak jartzea, baina bai hori egiten duten herritarrei jarreraz aldatzeko eskatzea. "Urteak dira eskualdeko edukiontzien ondoan zabor poltsak agertzen direla. Mankomunitatea jakinaren gainean dago aspalditik, eta gauero pasatzen da langile bat herrietatik poltsa horiek jasotzera. Zoritarrez, baina, kasu batzuetan goizean goiz lagatzen dituzte poltsok edukiontzi kanpoan eta egun osoan egoten dira kalean. Itxura txarra ematen dute, eta ingurumen arazoak sortu", zabaldu dute. Datuak ere eman dituzte gertatzen ari dena ilustratzeko. Datu horien arabera, alarma egoeraren aurretik, egunero 1.000 kilo hondakin inguru jasotzen zituzten eskualde osoan edukiontzi kanpoan utzitako poltsetan. Konfinamenduan kopuru hori murriztu egin zen, baina uda ondoren berriro egin du gora eta irailean 800 kilo hondakin baino gehiago jaso dituzte.

Astlehenean jarri zituen eskuragarri Elgoibarko Udalak merkataritza sustatzeko Bizi-bizixa bonoak

Ostalaritza sustatzeko salgai jarri zituzten On egin bonoak agortu direla jakinarazi du Udalak. Aldiz, merkataritza sustatzeko Bizi-bizixa bonoak salgai daude. Udalaren web orrian (elgoibar.eus) eskuratu daitezke, 17:00etatik aurrera, baina soilik orain arte hartu ez dituztenek hartu ahal izango dituzte. Bizi-bizixa bonoak merkataritza eta zerbitzuei zuzenduta daude, eta 50 eurokoak dira. Udalak 20 euro jarriko ditu, eta erosleak gainerako 30ak.

Amagandiko edoskidetzeari buruzko argazki lehiaketa sortu du Debarrenako ESik

Bizitzako lehenengo sei hilabeteetan haur batentzat amaren esnea baino elikagai hoberik ez dagoela sinistuta daude Debarrenako ESIn. Horregatik, Debarrenako ESIn amagandiko edoskidetzeari buruzko argazki lehiaketa hau ere duela bost urte. Irailaren 16an zabaldu zuten argazki lehiaketan parte hartzeko epea eta azaroaren 16ra arte jasoko dituzte argazkiak, bpsosidebarrena@osakidetza.eus helbidean. Parte-hartzaileek gehienez hiru argazki aurkeztu ahal izango dituzte, koloretan nahiz zuri-beltzean. Argazkiarekin batera inskripzio dokumentua eta irudia biltzeko eta zabaltzeko baimena erantsi beharko dute parte hartzaileek. Sari banaketa ekitaldia abenduan egingo dute Mendaroko Ospitalean.



Amagandiko edoskidetzeari buruzko V. argazki-lehiaketa
V concurso fotográfico "Lactancia Materna"

Ariana Nogalesek PSE-EEko zinegotzi kargua hartu du



Fernando Suarezek lagatako zinegotzi kargua hartu zuen joan zen astean Ariana Nogales Babarro sozialistak. 26 urte ditu Nogalesek eta Lan-harremanen eta giza baliabideen unibertsitate-gradua dauka eginda, bai eta master bat ere, lan-zuzenbideko aholkularitzari buruzkoa. Enpresa munduan jardun da azkeneko hiru urtean, giza baliabideen alorrean. Bidaiatzea, korrika egitea eta irakurtzea gustatzen zaizkiola esan izan du.

Guraso eta hezitzaileentzako bi hitzaldi Elgoibarren

Kiribilduz proiektuaren barruan, guraso nahiz hezitzaileentzako bi hitzaldi antolatuta ditu Atxutxiamaikak, Elgoibarko Udalarekin lankidetzan. *Nola lagundu seme-alabei eskolako lanekin?* hitzaldia izango da aurrenekoa. Urriaren 28an izango da, Ebete Hizkuntza Zerbitzuakeko Arrate Gisasolak emango ditu argibideak eta bi saio izango dira: 15:00etan, euskaraz, eta 18:00etan, gaztelaniaz. Aita Agirre kulturegoko areto nagusian izango dira biak. Aurrerago, azaroaren 17an, *Zergatik ez?* tailerra emango du Naiara Martin Elgoibarko Izarrako ki-deak, 10:00etatik 11:30era Aita Agirre kulturegoko areto nagusian. Euskararen erabilera sozialaren inguruan hausnartzeko tailerra da. Hitzaldirako zein tailerrerako izena eman behar da, hemen: www.elgoibarkoizarra.eus.

Hiru ikuskizun eszeniko programatu dituzte Aita Agirre Kultur Kaferako



railean abiatu zuten egitasmoaren barruan, hilabeteko ikuskizun eszeniko bat programatu dute Elgoibarko Udalak eta Taupada antzerki taldeak urtea amaitu bitarterako. Eguenetan izango dira emanaldi guztiak, Aita Agirre Kultur Kafean, 20:30ean. Urriaren 29an izango da hurrengoa: *Metamorfosia*, eta haren ondoren, *Etorkizunari begira* antzezlanaren interpretatuko dute, azaroaren 26an. Edurne Lasa eta Joxemari Larrañaga aktore lanetan ariko dira *Etorkizunari begira* obran, eta egun berean, *Ezin izan zena izan* ere antzeztuko dute. Azkenik, abenduaren 17an, hiru film desberdinetan oinarritutako *Zinemakopa* antzezlanaren taularatuko dute. Hamar antzezle izango dira eszenatokian. Edurne Lasa ariko da zuzendari lanetan, Joxemari Larrañaga teknikari, eta haiekin batera aktore talde handi bat, gehienak elgoibartarrak. Besteak beste honakoak: Maxis Otaegi, Ibai Leon, Nagore Cid, Sara Iriondo Otaño, Aitor Gisasola, Dani Zelaia Cooper, Jon Olivares, Juan Luis Ines, Itsaso Alguacil eta Andoni Urbietta.

Amorantek kontzertua emango du gaur zortzi, urriaren 30ean, Elgoibarko Herriko Antzokian



Oingoan bai zikloaren barruan Amorantek kontzertua emango du hilaren 30ean Herriko Antzokian, eta sarrerak salgai daude jada. Euro bateko prezio sinbolikoan jarri dituzte salgai eta Herriko Antzokian bertan eta Kutxabanken bidez eskuratu daitezke. *Bat edo hiru* bere azken lana argitaratu berrikan dator Amorante Herriko Antzokira.

Alex Txikon mendizalearen 'Mundu bat motxilan' filma, Mendaron

Alex Txikon mendizalearen gogoetak batu zituen *Mundu bat motxilan* liburuan Unai Ormaetxeak eta liburu horretan oinarritutako filma ikusteko aukera izango da orain Mendaron, urriaren 30ean. San Agustin kulturgunean izango da emanaldia, 19:00etan, eta sarrerak Mendaroko liburategian eskuratu daitezke, doan. Gehienez 80 lagunentzako lekua izango da.

Iñigo Cearsolo, Zumarragako musika bandako zuzendari izateko hautagai

Zuzendari bila dabilta Zumarragako Musika Bandakoak, eta aukeraketa prozesu bitxia jarri dute abian: zuzendari izateko galbahea pasatu duten lau hautagaien kontzertu bana eman behariko dute bandarekin eta musikariek eurek erabakiko dute zein aukeratu. Iñigo Cearsolo elgoibartarra da hautagaietako bat (2021eko apirilaren 25ean zuzendu behariko du kontzertu hori). Otsailera arte Luis Orduña (Barañain, 1980) izan dute zuzendari Zumarragan, baina otsailean utzi zuen banda Orduñak Gasteizko Udal Musikari Bandako zuzendari hasteko. Orduan hasi ziren berriaren bila Zumarragan eta 50 bat lagun aurkeztu zitzaizkien. Tartean baziren espainiarrak ere, baina aukeraketa erraztu aldera, Euskal Herrikoak ez zirenak baztertu zituzten. 18 hautagairekin gelditu ziren eta horietatik lau apartatu zituzten gero: Arkaitz Mendoza donostiarra, Aitor Biain oñatiarra, Ane Legarreta galdakoztarra eta Iñigo Cearsolo elgoibartarra. Horien artean dago orain joko.



Euskarari ekarpen bikoitza egingo dio aurten Errigorak udazkeneko kanpainan

Bihar hasiko du Errigorak *Nafar hegoaldeko uzta euskarari puzka* kanpaina, eta aurten, saski bakoitzeko 5 euroko ekarpena egiteko eskatuko die herritarrei, AEK-ri, Seaskari eta Sortzeni emateko, Korrika atzeratzeak, Herri Urrats bertan behera geratzeak eta Sortzenen jaia egin ez izanak eragindako diru-galerak arintzen laguntzeko. Beraz, saskien balioaren %25 + 5 euroko ekarpena egin nahi dio Errigorak euskalgintzari urriaren 24tik azaroaren



12rako kanpainan. Hiru saski izango dira aurten aukeran: beltza, berdea eta zuria, eta 5 euro gehiagoren truke, saski bakoitzarekin opari bat jasoko dute herritarrek: Saski beltza eskatzen duenak, Korrikaren katilua; berdea eskatzen duenak Seaskaren egutegia eta zuriarekin batera D ereduaren haziak banatuko dituzte. Errigoraren www.errigora.eus webgunean egin beharko dira eskaerak. Euskal Herria oinarri eta auzolana lanabes dituen ekimen herritarra da Errigora. Nafarroa hegoaldea du ardatz eta euskara ofiziala ez den zonaldean eragin nahi du, eremu horretakoak propio diren elikagaiei Euskal Herrian bidea emanaz, euskaratik, euskararako eta euskaraz.

Elgoibarko eta Mendaroko Eguneko Zentroak itxita daude koronabirus kasu bana atzeman dutelako

Elgoibarko Eguneko Zentroa itxita dago joan zen ostiralaz geroztik, bertako erabiltzaile batek positibo eman zuelako koronabirusa atzematuko PCR proban. Gainerako erabiltzaileei ere PCR probak egin zizkieten, eta arduradunek jakinarazi dute denek negatibo eman zutela lehenengo proban, eta gaur dutela bigarrena egitekoa. Hortaz, datozen egunetan oraindik zentroa itxita egongo da. Elgoibarko Udala harremanetan dago Gipuzkoako Foru Aldundiarekin eta Osasun Publikoko arduradunekin, eta zehaztu dute datozen egunetako egoera epidemiologikoak baldintzatuko duela zentroaren irekiera. Eguneko Zentroa itxita dagoela aprobetxatuta, suhiltzaileek desinfekzio lanak egin zituzten martitzenean. Era berean, Mendaroko Eguneko Zentroa ere itxi egin zuten eguaztenean, han ere koronabirus kasu bat atzeman zutelako. Azaroaren 2ra arte gutxienez itxita egongo da egoitza.

Eñaut Elorrietaren kantaldiarekin hasi dute 'Tertuliak' egitasmoaren ikasturte berria

Asteazkenean eman zioten hasiera 2020-2021 ikasturteko *Tertuliak* programari, Eñaut Elorrietaren kantaldiarekin. Aurreko ikasturtean ezin izan zioten astero biltzeko dinamikari eutsi, koronabirusa dela-eta, baina aurtengoan gauzak hobeto joango diren esperantzarekin ekin diotela esan dute antolatzaileek. Oraindik izena emateko epea zabalik dago eta ez dira talde guztiak osatu, baina dagoneko 35 lagun inguru daude izena emanda.



Interesatuek Elgoibarko Izarra (943 741 626) edo herriko bi euskaltegiara deitu dezakete: Udal Euskaltegia (943 742 731) edo AEK Euskaltegia (607 601 423). Euskaraz berba egiteko erraztasunik edo aukerarik ez daukatenei zuzenduta dago batez ere egitasmoa. Talde txikitik biltzen dira, astean behin, ordubetaz euskaraz tertulian jarduteko. Talde bakoitzean euskaraz ondo moldatzen den lagun bat egoten da saioa gidatzeko. 2021ean 20 urte beteko ditu *Tertuliak* programak.

Magosto Eguna bertan behera laga dute

Udazkenaren etorrerarekin antolatu ohi du Galiza Kultur Etxeak Magosto Eguna, baina aurten bertan behera laga dute, koronabirusaren pandemiak hala behartuta. Herritarren partetik harrera ona izaten du jai honek, eta arduradunek azaldu dute aurtengo osasun egoerak ez duela baimentzen horrelako jairik egitea.

Zuen kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus - 943 744 112



Ikastolarako sarrera-irteeretan sekulako kaosa sortzen da: "Ikastolarako sarrera-irteera orduetan han kanpoan sortzen den egoera kaotikoa izaten da, goizetan, bereziki. Jendeak autoa edozein lekutan uzten du, askotan espaloiak ere oztopatzen dituzte, eta oinezkoak errepidetik joan behar izaten dugu umeekin, horrek daukan arriskuarekin. Euria egiten duen egunetan auto kopurua handitu egiten da, eta egoera okerragoa izaten da. Orain, gainera, goizeko lehenengo orduan eguna nahiko ilun egoten da, eta arriskua handiagoa da".



Erremolke hau hilabete pasa mugitu gabe dago, leku berean: "Mendaroko Zelaikua plazan ia bi hilabetez geldirik dago erremolke bat, auto batentzako aparkalekua kentzen. Ez dakit horrelako erremolkeak autoentzako aparkalekuan uzterik badagoen, baina dena dela, bi hilabetez leku berean mugitu gabe egotea ez zait bidezkoa iruditzen".



Zabor poltsak lurtean uzten dituzte herritarrek: "Urazandiko argazkia da, baina badakit kaleko beste hainbat gunetan ere horrelakoak sarri errepikatzen dira. Jendeak ez ditu zabor poltsak edukiontzietan sartzen, eta dena zikin-zikin lagatzen dute. Batzuetan izan daiteke edukiontzia beteta egotea, baina beste askotan edukiontzietan lekua egon arren ere, zabor poltsak kanpoan egoten dira. Errespetu apur bat eskatu nahi diet bizilagunei".



San Roke kalean autoak azkarregi ibiltzen dira: "Zerabidea dagoen arren, aldapa oso azkar jaisten dute auto gidari batzuek, eta zerabidea ziztu bizian pasatzen dute. Egunen batean ezbeharren bat gertatuko da. Eskertuko genuke lurra altzatzea edo beste zerbaitek egitea, autoak gune horretan polikiago ibil daitezten".



Gabriel Krutzelaegi kaleko berdeguneak kakaz beteta egoten dira: "Herrian zehar ere txakur kakak ikustea ohiko bihurtu zaigu, baina Gabriel Krutzelaegi kaleko egoera lotsagarria da. Dauden berdegune apurrak kakaz beteta egoten dira. Horrez gain, kalea zikin-zikin beteta egoten da. Era berean, aipatu nahiko nuke kale honetan jende gazte asko bizi dela, ume txikiak dituzten familiak dira gehienak, eta ez dago haurrentzako parkerik edo jolaslekurik. Artetxeko parkean edo gure kalean bertan umeentzako jolasgune bat jartzea eskertuko genuke".



“Estatu Batuetako unibertsitate batean albaitaritza eta golfa uztartzea da nire ametsa”

▶ JANIRE EGAÑA

GOLF JOKALARIA

7 bat urterekin hasi zen Janire Egaña (Elgoibar, 2003) golfean jokatzen. Aitari betidanik gustatu izan zaio, eta neba nagusia ere hasi zen jokatzen. Haiek ikusterera joaten zen bera ere, eta azkenean familia guztia zaletu zen golfer. Janire txapelketetan ere aritzen da, eta horrez gain, golfak dituen baloreei buruzko hitzaldiak ere ematen ditu ikastetxeetan. Barruraino sartuta dauka golfaren arra, eta etorkizuna ere golfaren bidetik eraiki nahiko luke.

- AINHOA ANDONEGI -

◆ Noiz eta nola iritsi zinen golfer?

Nire aita hasi zen lehenengo golfean jokatzen, eta gero nire neba. Ni umetan igeriketan ibili nintzen, baina askotan joaten nintzen aita eta neba golfean jokatzen ikusterera, eta azkenean nik ere probatzea erabaki nuen. 7-8 urte nituen, eta hasieran ez zitzaidan gustatu. Gero hartu nion gustua, eta orain oso pozik nabil. Amak eta osabak ere jokatzen dute. Azkenean familia guztia gabilta golfean.

◆ Nola ikasi zenuen golfean?

Gasteizko Larrabea klubeko kide gara, eta han ikasi nuen. Nire egoera berean zeuden beste gazte batzuekin taldea osatu genuen eta entrenatzaile batekin hasi ginen astean behin eskolak jasotzen. Maila hobetu ahala, bakar-kako klaseak jasotzen hasi nintzen. Orain astean hiru egunetan entrenatzen naiz, batzuetan Gasteizen eta beste batzuetan Andoainen. Azterketak ditudanean denbora gutxiago eskaintzen diot golfari, baina bestela, saiatzen naiz astean hiru egunetan entrenatzen. Jon Rahm golfista ezaguna ere gure klubeko kidea da eta han entrenatzen da. Horrez gain klubeko gazteei erakusten ibiltzen da, eta niri ere eman izan dizkit klaseak.



Umetatik izan da niretzako erreferente. Illusioa egiten du maila horretako jokalaria bat zure ondoan entrenatzen ikusteak.

◆ **Eta noiz hasi zinen txapelketetan?**

Igeriketa utzi, eta golfari denbora gehiago eskaintzen hasi nintzen. Maila hobetu ahala hasi nintzen txapelketetan parte hartzen. 9 edo 10 urte izango nituen lehenengo aldiz leihatu nintzenean, eta dagoeneko irabazi izan ditut txapelketa batzuk, gehienak klubean bertan jokatutakoak. Aurten Alacanten jokatu dut Espainiako txapelketa, eta nire kategorian bigarren geratu naiz. Aurten 21 urte azpiko txapelketetan parte hartzen ari naiz. Gehienetan banakako txapelketetan hartzen dut parte, hobeto moldatzen naizelako bakarrik. Binakako txapelketak jokatzea gustatzen zait, baina presio handiegia nabaritzen dut txapelketa horietan. Binaka jokatu nahi izaten dudanean aitarekin edo nebarekin jokatzen dut.

◆ **Nola deskribituko zenuke golfa?**

Kontzentrazio eta positibismo handia eskatzen duen kirola da, eta orain arte ezagutu ditudan kirolen artean zailena, nire ustez. Kirol psikologikoa da, eta burua horretan eduki behar da uneoro. Golfean jokatzen ari zaren bitartean, burua beste zerbaitetan baldin badaukazu, ez duzu ondo jokatuko. Ondo pentsatu behar da pilota nora bidali nahi duzun, eta leku hori begiz jotzea garrantzitsua da, pilota hara botatzeko. Golf zelai osoa pasatzeko lau edo bost ordu behar izaten dira gutxienez, eta uneoro kontzentratuta egotea beharrezkoa da. Dena dela, lau orduetan gauza asko gertatu daitezke, eta posible da ondo hasi arren, gaizki amaitzea.

◆ **Zer ematen dizu golfean jokatzeak?**

Azterketa garaian, esaterako, asko laguntzen dit golfean jokatzeak, estresa kentzeko. Ez nuke esango estresaren kontrako terapia denik, baina asko laguntzen dit kontzentrazioan. Golfean aritzen naizenean horretan bakarrik pentsatzen dut eta gainerako gauzetaz ahazteko balio dit. Hala ere, gaizki jokatzen dudanean estresatu egiten naiz,

“Kontzentrazio handia eskatzen duen kirola da golfa”

baina orokorrean balore asko irakatsi dizkit golfak. Oso ondo pasatzen dut, eta lagun asko egin ditut. Jendea oraindik harritu egiten da golfean jokatzen dudala esaten dudanean.

◆ **Zein balore transmititzen ditu golfak?**

Zintzotasunean eta errespetuan oinarritzen da golfa. Txapelketa garrantzitsuetan egoten dira epaileak, baina bestela, epailerik gabe jokatzen dugu eta norberaren zintzotasunean oinarritzen da jokoa. Guk kontatzen ditugu kolpeak eta tranpak egitea oso gaizki ikusita dago. Umetatik erakusten diguten lehenengo balorea da hori, zintzotasuna. Errespetu handiz jokatzen dugu.

Ikastetxeetan ibili izan naiz gaztetxoei golfean baloreak transmititzen. Jende askok uste duenaren kontra, balore oso garrantzitsuak ditu golfak.

◆ **Golfean ba al dago desberdintasunik gizonezkoen eta emakumezkoen artean?**

Bai. Hasteko, gizonezko gehiagok jokatzen dute emakumezkoek baino. Bagabiltza batzuk, baina askoz gehiago dira gizonezkoak. Klubean bertan ere desberdintasunak daude, esaterako, emakumezkoen aldagelak txikiagoak dira. Jokoan bertan ere emakumezkoek zirkuito laburragoa jartzen digute. Profesionaletan sariak ere desberdinak dira emakume eta gizonentzat, baina gure mailan sariak parekatuta daude. Golfetik bizitzea oso zaila da, Espainian behintzat. Atzerrian diru gehiago irabazten da eta badaude golfista emakume profesionalak ere bai, baina gizonezkoen sailak diru gehiago mugitzen du, eta gehiago dira gizonezkoak.





♦ Koronabirusak nola eragin dio golfari?

Neurri batzuk hartu dituzte, badaezpada: Esate baterako, zelaiko bandera-
txoak ezin ditugu ukitu eta tenperatura
hartzan digute, baina maskara gabe jo-
katzen dugu. Aire librean egoten gara,
eta ez da jende pilaketarik egoten, beraz,
maskara ez da derrigorrezkoa.

♦ Kirol elitistaren etiketa dauka golfak. Hala dela iruditzen zaizu?

Ez dut uste hori horrela denik. Jende
askok jokatzen du golfean, bai gazteek
eta baita helduek ere, eta niri iruditzen zait
edozeinen eskura dagoela. Golfean joka-
tzea ez da hain garestia. Material marka
garestiak badaude, baina diru gutxi gas-
tuta badago golfean jokatzeke aukera.

“Zintzotasunean eta errespetuan oinarritzen da golfak”

Norberak erabaki dezake materialean
zenbat diru gastatu nahi duen, beste kiro-
letan bezala. Korrika egiteko zapatilekin
ere gauza bera gerta daiteke, edo futbo-
lerako materialarekin. Batzuk oso gares-
tiak dira eta beste batzuk ez horrenbeste.

♦ Zein ezaugarri behar dira golfean jo- katzeko?

Golfean jokatzeak ez du eskatzen
fisikoki indartsu egotea. Egia da fisikoki

ondo egoteak laguntzen duela, pilota
urrutira bota behar denean bereziki,
baina ez da ezinbesteko ezaugarria.
Nire lagun batzuk asko entrenatzen
dute fisikoa, baina nik ez horrenbeste.
Kirol fisikoa baino gehiago teknikoa da
golfak. Oro har, edonork jokatu dezake
golfean. Gogoia eta ilusioa izatea da
kontua, ordu asko eskatzen dituelako.
Entrenamenduak luzeak izaten dira, eta
motibazioa da garrantzitsua.

♦ Teknikari dagokionez, zer hartu behar da kontuan golfean jokatzeke?

Entrenatzeak ematen dizu teknika;
golfari orduak eskaintzea da klabea.
Pilota urrutiko zulo batera botatzeko
distantzia neurgailuak erabiltzen dira.
Neurgailu horrekin jakiten dugu ze-
hazki zuloa zein distantziatara da-
goen, eta horren arabera makila ondo
aukeratu behar da. Fisikoki indartsu
egonda errazagoa da pilota urrutira
botatzea, baina indarra baino garran-
tziatsua da norabidea ondo ematea.

♦ Golfari lotuta, zein da zure ametsa?

Aurten Batxilergoko bigarren mailan
nago, eta datorren urtean unibertsita-
tera joango naiz. Gustatuko litzaidake
Estatu Batuetako unibertsitate batera jo-
atea, golfak eta ikasketak uztartzeko. Es-
tatu Batuetan garrantzi handia ematen
diote kirolari eta unibertsitate askok es-
kaintzen dute ikasketak eta kirola uztar-
tzeko aukera. Hara joateko bi
hautaprobe egin beharko ditut, bat
hemen eta bestea Estatu Batuetan, eta
lortzen dudun puntuazioaren arabera
aukeratu ahal izango dut unibertsitatea.
Egia esan, ez daukat preferentziarik,
edozein dela ere, pozik joango naiz.
Estatu Batuetara joan ahal izateko nire
golf maila hobetzea garrantzitsua da,
eta ikasketetan emaitza onak lortzea
ere bai. Albaitaritzak ikasi nahi dut, ani-
maliak izugarri gustatzen zaizkidalako.
Baserrian bizi naiz eta umetatik anima-
liz inguratuta bizi izan naiz. Nire ame-
tsa da albaitaritzak eta golfak uztartzea,
baina etorkizunean albaitaritzatik bizi-
tzea nahiko nuke, golfak zaletasuna da
niretzat.





► COVID-19aren semaforoan gorri ageri da Elgoibar

Egoera larria da. Oro har denean, baina bereziki Gipuzkoan. Hala ohartarazi du Eusko Jaurlaritzak azkeneko egunotan. Eta hala erakusten du COVID-19ak udaleriz udalerriri duen eragina aztertzeko Jaurlaritzak berak erabili duen koloretako semaforo sistemak. Semaforoak kolore berde, hori, laranja edo gorriarekin sailkatzen ditu 5.000 biztanletik gorako udalerririk, azken bi asteetan azaleratutako koronabirus kasu berrien arabera. Kolorea berdea da intzidentzia-tasa 100.000 biztanleko 60 kasutik beherakoa denean; horia, 60-299 kasu artekoa denean; laranja 300-499 kasu artekoa denean; eta gorria, 500 kasukoa edo gehiagokoa denean. Eta semaforo horretan gorri ageri da Gipuzkoa, eta gorri Elgoibar ere, barikuzaz geroztik (11.000 biztanle inguru ditu Elgoibarrek eta 707,81eko intzidentzia tasa zuen asteazkenean, edizio hau ixteko orduan). Atzo arratsaldean, semaforoan gorri koloreko ageri diren herrietan zer neurri hartu aztertzeko bilera egitekoa zuen babes sozialerako Euskadiko planaren aholku batzordeak (LABI), eta litekeena da lerro hauek irakurtzen dituzunerako neurri gogorragoak ezarrita egotea Elgoibarren, irakurle. [Etteratze agindua eta mugikortasuna are gehiago murrizteko neurriak hartu ditzaketela aipatu dira asteon]. 2.000 biztanle pasatxoko herria izanda, Mendaro ez da semaforo sistema horretan sartzen, baina egoera larria da han ere. Asteburuan zazpi positibo kasu atzeman zituzten Mendaron, eta azken egunotan kasu bakar bat zenbatu ez duten arren, intzidentzia tasa 981,77koa zuen asteazkenean.

Auzitegi Nagusiak ez du baimendu bilerak sei lagunetara mugatzea

100.000 biztanleko 500dik gora positiboko tasa duten herrietan zer neurri hartu zain geunden lerro hauek idazteko unean, baina beste zenbait neurri murriztaile indarrean jarri ditu Jaurlaritzak Gipuzkoa, Araba eta Bizkai osoan, kutsatzeen joera gorantzkoa dela ikusita eta gora egiten jarraituko dutela aurreikusita. Zapatuan iragarri zituen Gotzone Sagardui Osasun sailburuak neurri horiek, baina neurriok herritarren oinarrizko eskubideei eragiten zieten, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak onartu behar zituen indarrean jarri ahal izateko, baina lerro hauek idazteko unean Europa Press berri agentziak zabaldu zuenez, talde bilerak sei lagunera mugatzeko neurria lege babesik gabe utzi zuen, "oinarrizko eskubideak urratzen" dituela arrazoituta. Jaurlaritzak beraz gomendatu ahal izango du arlo pribatuan zein publikoan gehienez sei lagun batzea, baina ezingo du derrigortu. Jaurlaritzak iragarritako gainerako neurrien inguruan ez zen ezer zabaldu edizio hau ixteko ordurako. Baina Jaurlaritzak ostalaritzako establezimenduak gauerdian ixtera behartu nahi zituen, txoko eta el-

karte gastronomikoak itxi, eta aforoak %50era mugatu jarduerak guztietan. Era berean, 23:00etatik aurrera haurrentzako parkeak ixteko asmoa ere bazuen, bai eta kirol lehiaketa ez federatuak bertan behera uzteko ere. Jende elkartzeko handietan ere mugak ezarri asmo zituen: eremu txikietan egiten direnetan, gehienez, 400 lagun batzeko neurria ezarri nahi zuen, eta espazio libreetan egiten direnetan, 600. Berrito konfinatzeko aukerarik ikusten ote zuten galderari erantzunez, sailburuak esan zuen oraingoz ez dutela halakorik aurreikusten Gipuzkoa, Araba eta Bizkai osorako, baina ez dutela baztertzen tokian-tokian era horretako neurriak hartzea.

Osasun sailburuak zapatuan esandakoaren arabera Biziberri II planean aurreikusitako bost egoeretatik laugarrenean gaude eta horrek behartu ditu neurri murriztailegoak hartzera. Sailburuak zehaztu zuen Biziberri II planean ezarritako hiru adierazletan oinarrituta aztertu zutela egoera epidemiologikoa eta asistentziala, eta horri lotua datorrela neurri murriztailegoak jarri nahia. Honakoak dira adierazleak: hamalau egunetan metatutako intzidentzia-tasa, kutsakortasun indizea eta ZIUetan okupatutako ohe kopurua. Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiaren intzidentzia tasa 100.000 biztanleko 360,74koa zen zapatuan, eta 391,82koa eguaztenean. Kutsakortasun indizea, berriz, batetik gorakoa da: 1,37koa zapatuan, eta 1,43koa eguaztenean. Zainketa Intentsiboetako Unitateetan, berriz, 50 pertsona baino gehiago daude ingresatuta asteburuaz geroztik (59 ziren eguaztenean), hala ere, azken horren harira zehaztapen bat egin zuen sailburuak: "50 pertsona baino gehiago daude zainketa intentsiboetan, baina 620 ohe ere izan ditzakegu COVID-19 kasuetarako".

Osakidetzaren protokoloan hainbat aldaketa ere egin(go) dituzte. Batetik, zaintza eta kontaktuen miaketa indartuko dute, eta 45 pertsona gehiago jarriko dituzte lan horretara. Bestetik, kasu positiboaren isolatze-denbora 10 egunera murriztu dute, sintomak agertzen direnetik, edo ospitaleratuta egon diren pazienteen kasuan, ospitaleko alta ematen dietenetik hasita (lehen, 14 egun ziren), baldin eta gutxienez hiru egun egon badira sintomarik gabe. Eta azkenik, kontatuen berrogeialdia 10 egunera jaitsi da, gaixotasunen prebentziorako eta kontrolerako Europako zentroaren gomendioei jarraituz.

Test antigenikoak

Osakidetza test antigenikoak erabiltzen hasiko dela ere zehaztu zuen Sagardui zapatuan. PCR proban positibo eman dutenen kontaktu estuei egingo dizkiete test horiek eta egunetan bertan jasoko dute emaitza. Test horien funtzionamendua "sinplea" da. PCR probak genoma atzematen duen eran, test antigenikoak birusaren proteina bat detektatzen du, hain zuzen ere, kutsatuta dauden pertsona guztiek garatzen duten proteina bat.

▶ NEKANE JACINTO ESTHER MARTINEZ MONIKA AIZPITARTE

BAIKARAKO FORMAZIO TALDEKOAK

Adituek ohartarazi dute osasuntsu hazteko denbora gutxiago eman behar dutela pantaila aurrean umeez, bereziki 5 urtez azpikoek. Ez da beti erraza, eta lehenaz gain, zaildu egin du pandemiak. Konfinamenduan are gehiago lotu ziren ume asko pantailara eta argi bila Baikarara jo dugu, Gipuzkoako guraso elkartearen federaziora. Baikarako Nekane Jacintok, Esther Martinezek eta Monika Aizpitartek idatziz erantzun diete gure galderari.

- AINARA ARGOITIA -



“Saiatu behar gara gailuak seme-alaben eskuetan uzteko adina ahalik eta gehien atzeratzen”

♦ Gaur egungo ume eta gazteek ezagutu eta kontrolatu behar dute teknologia, baina ez dugu nahi teknologiak haiek kontrolatzerik. Nola lortu oreka hori?

Teknologiak egungo gizartean presentzia ikaragarria duela ez dago zalantzan jartzerik. Horregatik ez da komenigarria gure seme-alabak teknologiatik erabat aldentzea, baina ezinbestekoa da erabilera osasuntsua egitea. Alegia, lehen hurbilpenaren aurretik, funtsezkoa da erabilerarako arauak adostea/ezartzea.

♦ Pantailak zer eragin dute haurren gorputz eta buruko osasunean, eta zer eragin dute elkarbizitzan?

Gero eta gehiago dira honen inguruko ikerketak eta denetan argi geratzen da teknologiaren gehiegizko erabilpenak eragin kaltegarriak dituela gorputzean, buruko osasunean eta elkarbizitzan. Esate baterako, gorputzari dagokionez, mugimendu gutxiko bizi-ohiturek eta, are gehiago, postura ezegokiekin batera badoaz, konplexutasunak ekar ditzakete ikusmenean eta gorputzeko gihar zein artikulazioetan. Bestetik, haur eta nerabeez ari garela, eta buru osasunaren kasuan, zenbait egoerek, isolamendura, errealitatearen distorsiora eta bestelako larritasunetara eraman dezakete eta kezkatuta gaude teknologiak orokorrean haien auto-estimuan eta auto-kontzeptuan duen eraginagatik. Hain zuzen ere, eta gutxi gorabehera 5 urteak bete arte auto-estimuan hitz egitea argia ez den arren, baieztatu dugu adin horretarako izandako bizipenek eragina izango dutela haur horien auto-estimuan, ordurako, nahiko bizipen izan dituztelako beren

buruaren balorazioa egiten hasteko (sare sozialen erabilpena egin baitute; adibidez, Youtuben bideoak ikusterakoan). Aipatutako adin honetatik aurre-nerabegarora bitartean, haur baten auto-estimuan norberak izandako gaitasun zein abileziek gero eta garrantzi handiagoa hartzen doazen heinean, gaitasun zein abilezi horiek teknologiarekin lotzeak (bideojokoetan lehiatzea, besteen arreta bereganatu nahi izatea, erronka ezberdinetan parte hartzea...) eragina izango du bai ala bai auto-estimuen garapenean. Nerabegaroen, berriz, identitatearen garapen bizian murgiltzen dira gazteak eta teknologiengandik jasotako ereduak kalte nabariak egin ditzakete; aipagarrienak: auto-irudian, kideen arteko harremanetan, estereotipoen barneratzean, pornografiak genero berdintasunean izandako desorekan eta sexu-harremanak hautemateko moduan... Horrek guztiak, eraldaketa nabaria ekarriko du orain arte ulertu dugun elkarbizitza moduan. Eta komunikazio bide berriak sortu direla ulertzen badugu ere, ez dugu ahaztu behar, funtsean, gure seme-alaben beharrak izandako berberak direla adin tarte hauetan.

♦ Sarri ohartarazi zaigu pantailak ezin ditugula erabili “ixupete emozional gisa”. Nola, noiz, zertarako, eta zein adin tartetik aurrera erabili beharko genituzke? Non legoke neurri egokia?

Haur bat ohitzen dugunean edozein egoeraren aurrean bere emozioak pantailen bitartez ekiditera, ez gatzazkio inolako mesederik egiten ari; hau da, haur batek ez baditu bere emozioak identifikatzen, ezingo ditu ulertu eta, beraz, ezingo ditu kudeatu.

Ondorioz, egoera ezberdinei autonomoki eta arrakastaz aurre egiteko oztupoak biziko ditu, emozioen kudeaketarako ere baliabide mugatuak izango dituelako. Abiapuntu horretatik, ezin bestekotzat jotzen dugu familiaren elkarbizitzan adimen emozionalari berebiziko arreta eskaintzea.

Bestalde, kontuan izanda haur eta nerabeak askotarikoak direla, ezinezkoa egiten zaigu esatea zein adin den egokia teknologia erabiltzen hasteko, ez eta erabilpen konkretu bat zehaztea ere. Izan ere, haur bakoitzak bere berezitasunak ditu eta jakin badakigu, zenbait haurri onuragarri zaiela teknologia erabiltzea, besteak beste ikaskuntzarako edo komunikatzeko. Hala eta guztiz ere, gure ustez, kontuan hartu behar duguna zera da: gure seme-alabaren nolakotasuna, heldutasuna eta gure seme-alabarekin batera zein bide egiteko prestutasuna dugun. Zein bide? Gure seme-alabari lehenengoz gailu bat eman aurretik erabilera egokia zein den partekatu behar dugu berarekin. Gailuren bat uzten dioguneko arau argiak adostu behar ditugu, eta azkenik, konfiantzazko erabilera egiteko aukera ikusten dugunean, bidea egiten utzi behar diogu, beti ere gu laguntzeko prest egonda. Gomendio bat: saiatu behar gara gailuak beren eskutan uzteko adina ahalik eta gehien atzeratzen.

♦ **“Ingelesezkotz marrazki bizidunak ikusten ditu. Gutxienez ingelesa ikasiko du”, esango dizu 3-4 urteko haur baten gurasoak. Adin goiztiar horretan mesedegarri edo kaltegarri da; zein neurritan?**

Lehen haurtzaroan, ikaskuntzak jolasen du oinarria bereziki eta besteekin izandako elkarrekintzak, ikaskuntza hori areagotuko du. Adin horietan, garunak berebiziko garapena izango du eta horretatik, bere kabuz ikas dezan utzi behar diogu. Estimuluz betetzeak ez du jakinduria handituko, eta are gutxiago, hori pantaila baten esku utzita. Haurrek, 6-7 urte bete arte, fantasiaz beteriko mundua bizi dute eta jasotako informazio guztia beren erara ulertzen dute. Hori horrela izanik, jasotako informazio askorentzako oraindik ulermen gaitasuna nahiko garrantzia ez dutenez, ez dugu eskatzerik jasotako datuak edota irudiak asimilatzea.

♦ **Konfinamenduan sekula baino gehiago eskatu genien haurrei pantaila aurrean euren buruak grabatzeko, sarri eskolako proposamen edo lanei erantzuteko. Ez al dago hor kontraesan bat? Ez al du horrek mendekotasuna handitzeko bidea eman?**

Eskolek ikasleei eskatutakoa ez da beti berdina izan. Egia da irakasle askoren komunikatzeko modua hori izan zela eta ikasle guztiek ez zutela gogokoa izan. Badirudi, familiek hala esan zigutela, hasieran motibazio handiagok hartzen zi-

tuztela halakoak, baina egia da konfinamenduak haur-nerabeengan eragina izan zuela eta ondorioz halakoak derrigorrezkotzat hartu izan zituztela, interesez baino gehiago; besteen aurrean agertzearen lotsa, presio, beldur, eta beste-lako emozioek, beti ere ez zioten poztasunari bidea utzi. Mendekotasunari dagokionez, gure aburuz, erabileraren eskaera honek ez du zergatik mendekotasuna areagotu behar; ez direlako soilik erabilera orduak kontuan hartu behar, baizik eta zer erabilera ematen dioten: zer ikusi, zer entzun, zer bideojokotara jokatu, ze sare sozial erabili, nolako sormena landu behar izan duten pantailaren aurrean...

♦ **Bizitza aldatu egin dela pentsatzea ere zilegi da. Helduok ere ateratzen diogu probetxua pantailei, zer esanik ez konfinamenduan, eta gaztetxoek ere bai, kontaktu sozialerako, komunikatzeko eta emozioak adierazteko tresnatzat erabiltzen dituztelako telefonoak eta beste. Nola eskatu seme-alabei gu geu aplikatzeko gai ez garena?**

Guk oso argi dugu teknologien erabilpen egokiagoa egin behar dugun lehenak helduok garelako. Hau aldatzen ez den bitartean, haur/nerabe/gazteek zailtasun gehiago izango dituzte erabilpen arduratsua egiteko. Helduok, baina batez ere guraso garenok, gure seme-alaben eredu izan behar dugu.

♦ **Nola trata daiteke mendekotasuna?**

Haur batek izandako jarrera ezegokiak ikasitakoak dira eta ondorioz, ikasitakoa den heinean, beti hobetu ahal da. Argi daukagu, hala ere, aldaketa ez dela egun batetik bestera izango eta haurrak aldaketaren aurrean erresistentzia jarriko duela. Gure aburuz, mendekotasun mota honi aurre egiteko, lehen pausoa gure seme-alaba ulertzea eta errudun ez sentiaraztea da. Modu honetan, pantailen hurbilpenetatik denboraz alboratu eta bestelako aukeratan pentsatzen lagunduko diogu; Izan ere, orain arte bere aisialdia batez ere digitala izan bada, bestelakoaren aurrean asperdura erakutsiko du. Ondoren, prest dagoenean erabilpen osasuntsuagoa egiteko, komeniko litzateke nola erabili arautzea. Hasieran aipatu bezala, ezin ditugu haurrak dauden errealitatetik guztiz aldendu, baina bai erakutsi teknologia modu arduratsuan erabiltzen. Egia da guraso askok uste dutela teknologiaz seme-alabek gehiago dakitela eurek baino, baina gurasoek formazioa jaso bagenezake, asmatuko dugu uste oker hori deusezten. Garbi dago gure seme-alabek ezagupen argia dutela, pantailak ere txikienek modu oso intuikiboan erabiltzeko sortuak daudelako, baina gurasoek gara bizi-erabileraren handiagoa dugunak, arriskuak heldutasun handiagok ikusten ditugunak eta seme-alabei lagundu behar diogunak. Beraz, teknologiaren munduan murgildu behar gara, bai, baina bizitza gozatzeko aukera modu ezberdinak sustatu ere bai.

*“Helduok, baina
batez ere guraso
garenok, gure
seme-alaben eredu
izan behar dugu”*

Amorraua izan: Zerbaiten oso zalea izan. *Bai, bai, juan bertara eta arraiña, peskan. Eta amorrauk giñan gu, hau Kondia difuntua? Haura ta...*

Drogaren inguruan hausnartzeko bidea eman nahi du 'Zaldi urdina' antzezlanak gaur Elgoibarren



Martxoaren 13an, eskola-umeak etxera bidali biharamunean eta Espainako Gobernuak alarma egoera ezarri bezperan, zuten ematekoa Elgoibarren *Zaldi urdina* antzezlanak, baina pandemiak emanaldi hura bertan behera lagatzera behartu zituen antolatzaileak. Martxoaren 13ko zenbakian (1.152an) argitaratu zuen BARRENEK obraren zuzendari Ximun Fuchsi egindako elkarrizketa eta elkarrizketa hartako esan batzuk batu ditugu hemen, azkenean, gaur, hilak 23, izango dugulako obra Herriko Antzokian ikusteko aukera, 20:30ean hasita.

Axut, Artedrama eta Dejabu konpainiek elkarlanean sortu duten azken lana da *Zaldi urdina*, elkarrekin egindako laugarrena. Ximun Fuchsek zuzendu du esan bezala, eta Igor Elortzarrena eta Unai Iturriagarena da gidioia. Antzezlanaren oinarrietako bat, berriz, Justo Arriolaren *A los pies del caballo* liburua izan da, hortik hasi zutelako dokumentazio lana, baina Uxue Alberdiren *Jenisjoplin* liburuan ere bilatu zuten inspirazioa gidogileek. Drogak Euskal Herriko familietan izan zuen eragina aztertu dute antzezlanen. "Uste dut bazela behar bat drogei buruz hitz egiteko, gure historia geuk kontatzeko", esan zion aldizkari honi Fuchsek martxoan. Euskal Herrian droga "nahita" sartu zutela gogora ekarri zuen Fuchsek elkarrizketan, "belaunaldi oso bat itotzeko eta hiltzeko" eta gertatu zenaren eta eragin zuen minaren inguruan gogoeta egitera bultzatu nahi du obrak. Antzezlanak kontatzen duen istorioa, hala ere, gaur egunean kokatzen da. "Izan ere, droga

aipatzen dugunean iruditzen zaigu 80ko hamarkadaz ari garela beti, baina Euskal Herrian gaur edozein droga aurkitzen ahal da oso erraz eta sarraski handi haren ondorioak gaur egun ere ikusten ahal dira: familietan hainbeste hutsune, eta hainbeste sekretu eta isiltasun", zioen Fuchsek.

Diskotekan droga hartuta bihotzekoak jota hil den gazte baten ingurukoa da obra. Gazte horri droga saldu dion 17 urteko lagunak ihes egingo du eta haren etxeok bere bila abiatuko dira, mutil hori familiako gaztetxoena eta maitatuena dutelako. "*Euskal road movie* estiloko istorioa biziko dute senideek": Drogaren inguruko mezua baino gehiago droga kontsumoaren inguruko gogoeta bilatzen du, nolana ere, antzezlanak: "Zer gertatu da hemen? Zergatik ez da auzitara eramanez ahal izan istorio hori? Jakina da koarteleetatik irten zela droga, baina gertaturikoa ez da sekula epaitu. Zergatik uzten da oraindik isilpean? Zergatik uzten da kanpoan drogaren gaia euskal gatazkaren kontakizunetik? Eta zergatik uzten da motxila astun hori familien bizkarrean?". Debatea sortu eta ikuslearen barrenek "mugitzea" bilatzen du obrak, ikuslea "hunkitzea". "Gure mezua ez da droga txarra da, gu ez garelako inor esateko ongi ala gaizki den, droga izaten ahal delako gauza asko. Gauza da nola erabiltzen eta kudeatzen dugun. Hori da arriskutsua. *Zaldi urdina* obrarekin aukera ematen diegu ikusleei pentsatzeko zergatik badagoen historian zehar drogak erabiltzeko halako behar bat".

Euskadi Saria irabazi du Uxue Alberdik, 'Kontrako eztaeratik' saiakerarengatik

Emakume bertsolarien bizipenak jasotzen zituen Uxue Alberdik *Kontrako eztaeratik* liburuan (Susa). Garai diferentietan plazaratutako hamabost bertsolarirekin mintzatu zen Alberdi liburu horretarako. "Emakume modura irakurria izateak eragin al dizu? Eta eragin badizu, nola eragin dizu bertsotan egiteko orduan?" galderak egin zituzten eta haien testigantzetan oinarrituta, emakume bertsolarien jarduna mugatzen duten hainbat mekanismo zerrendatu zituen. Eta liburu horregatik saritu dute orain euskarazko saiakera onenari dagokion Euskadi Sariarekin. Alberdik 18.000 euro jasoko ditu ordainetan eta beste 4.000 euro ere eskuratu ahal izango ditu, lan hori beste hizkuntza batean argitaratuz gero. Sariak azaroaren 19an banatuko dituzte, Bilbon, Azkuna zentroan. Gainerako sarituak honako hauek izan dira: Euskarazko Literaturan: Karmele Jaio (*Aitaren etxea*); Euskarazko Haur eta Gazte Literaturan: Iñigo Astiz (*Joemak eta Polasak*); Lan Literarioaren Ilustrazioa: Miren Asiain (*Un millón de ostras en lo alto de la montaña*), Narratiba gaztelaniaz: Aixa de la Cruz (*Cambiar de idea*), Euskarazko Literatura Itzulpena: Idoia Santamaria (*Aldibereko*) eta Saiakera gaztelaniaz: Borja Barrague (*Larga vida a la socialdemocracia*).



Aurten egitekoa zen Korrika 2022ra atzeratu du AEK-k, pandemiagatik



Martxoan Gasteizen zen hastekoa 22. Korrika, baina antolatzaileek 2022ra atzeratzea erabaki dute. Pandemiaren transmisioa ahalik eta gehien murrizteko hartu dute erabakia, nahiz jakin AEKrentzako kolpe handia izango dela atzeratzea, euskaltegietakoa lana ekonomikoki babesteko egiten delako Korrika. Horregatik atzeratzearekin batera ohartarazpen bat ere egin dute: "Inbertsioak handitu behar dira. Administrazioari dagokionez, euskaltegiei bideratutako baliabideak oraindik ez dira nahikoak, urratsak egin badira ere norabide egokian".

Hutsik laga du Mendaroko Udalak 'Nik kontatuko dizut' ipuin lehiaketa

Konfinamendu garaian jarri zuen Mendaroko Udalak *Nik kontatuko dizut* lehiaketa martxan. 6 e-book zozketatzekoak zituen Udalak parte hartzen zuten ume guztien artean, baina hutsik laga du azkenean, hiru umek aurkeztu zituztelako lanak eta Udalak gutxiegi iritzi diolako zozketa egiteko. Danel Garcia Urbietak, Maia Soto Urbietak eta Luken Zulaika Argoitiak aurkeztu zituzten bideoak, eta "parte hartu izana eskertzeko", liburu bana eman die Udalak. Lehiaketan bi maila bereiztu zituen Udalak. 8 eta 10 urte bitartekoek euskarazko ipuin bat irakurtzen grabatu behar zuten euren burua eta ondoren bideo hori lagun bati bidali, Udalera bidali aurretik. Gehienez bi minutuko bideoa izan behar zen. 11 eta 14 urte bitartekoek, berriz, gauza bera egin behar zuten, baina kasu horretan ipuina euren sortu behar zuten, euskaraz.

Aurreku txapelketa jokatu dute bihar Elgoibarko Herriko Antzokian

Koronabirusagatik bi aldiz atzeratu ostean, azkenean bihar jokatu dute Elgoibarren XIX. Aurreku Txapelketa. Goizez, 11:00etatik aurrera, 2005-2006. urteetan jaiotakoak lehiatuko dira, eta arratsaldean, 16:00etatik aurrera, B eta A sailekoak: 2007-2008-2009. urteetan jaiotakoak eta 2010-2011 eta 2012. urteetan jaiotakoak, hurrenez hurren. Inazio Bereziartua eskolako zazpi dantzariak parte hartuko dute: Jon Etxeberriak, Eneko Etxanizek, Markel Goenagak, Aimar Almortzak, Nerea Galindok, Naroa Urrutiak eta Malen Galarragak.

Martxan da Euskararen Eguneko Esaldi Lehiaketa

Euskararen Eguneko Esaldi Lehiaketa antolatu dute seigarren urtez Elgoibarko Izarrak eta Gaztelekuak DBHko eta Batxilergoko ikasleentzat eta azaroaren 1a arteko epea jarri dute esaldiak entregatzeko. Hiru bide daude horretarako: Whatsapp (628 170 330), Instagram bidez (@elgoibarkogaztelekua) eta e-posta (gaztelekua@elgoibar.org). Euskarari lotutako esaldia izan behar da derrigor, baina ezingo dira "euskara" edo "hizkuntza" berbak erabili. Irabazleak 100 euroko balea jasoko du, herriko dendetan gastatzeko. Gainera, lehiaketa irabazten duen esaldiarekin kamiseta bat sortuko dute, eta doan banatuko diete 13 eta 18 urte bitartekoei.

Beñat Carvayedak irabazi du Javier Ezenarro Oroitzarrea

Buruntzazpi txirrindularitza eskolako (Bazpi) Beñat Carvayedak Urruzolak irabazi zuen zapatuan Mendaroko Javier Ezenarro Oroitzarrea. Bigarren egin zuen Enekoitz Azparrenekin batera iritsi zen helmuga jarria zuten azken aldapara eta esprinean gailendu zen. Hirugarren Unai Cueva Etxeberriarteun sailkatu zen. Taldeka, berriz, ULMA taldea nagusitu zen. Gipuzkoako txapelketako proba izan zen zapatukoa, eta Beñat Carvayedak berak jantzi zuen txapela. Berezia izan da aurtengo Javier Ezenarro oroitzarrea ere. COVID-19aren eraginez, lasteketa ez zen herri barrura sartu, eta irteera-helmuga puntua Kurutz Gain industrialdean jarri zuten. Gipuzkoako Txirrindularitza Federazioak ezarritako protokoloa bete behar izan zuten



antolatzaileek. Irteera aurretik, tenperatura hartu zieten txirrindulariei, bai eta haien taldekide zein zuzendariei ere, eta maskara jantzita ibili ziren denak lasteketa abiatu arte, eta ibilbidean ere aldatketak egin behar izan zituzten. 125

txirrindularik hartu zuten parte lasterketan, eta tropelean izan zen Beñat Fernandez Mendaroko txirrindulari gaztea ere. Elgoibarko Lagun Taldeako txirrindularia da Fernandez, eta 18. postuan sailkatu zen.

Aloña Mendi taldeari irabazita hasi du Liga Haundik



Joan zen asteburuan hasi zuen Liga Txapelketa Haundik, eta 2-0 irabazi zion Aloña Mendiri, Mintxetan. Garaipen honi esker, Ohorezko Erregional mailako bigarren taldeko bigarren postuan sailkatuta dago taldea, Debako Amaikak Bat taldearekin berdinduta. Partida hau Covid19ak ezarritako protokoloan oinarrituta jokatu zuten: Mintxetako harmailetako aforoa mugatuta zuten arduradunek, eta ikusle guztiei tenperatura hartu zieten kirol instalazioetan sartzetakoan. Mintxetan ibilizeko norabideak ere zehaztu zituzten, eta ikusle guztiak maskara jantzita egon ziren. Asteburu honetan Arrasaten jokatuko du Turrilasen taldeak.

C.D. Elgoibarren emakumeen taldeak, bestalde, puntu bat ekarri zuen Usurbildik, hango taldearen kontra bana berdindu ostean. Domekan Mintxetan jokatuko dute, 17:00etan. Ohorezko jubenilek ere bana berdindu zuten Arrasaten, eta Ohorezko Kadeteek 0-2 galdu zuten Anaitasunaren kontra.

Azaroaren 20rako antolatu du Morkaikok Mendi Film Festivaleko emanaldia

Lau film eskainiko ditu Morkaikok azaroaren 20an, *Mendi Tour* izenburupean. Mendi Film Festival ekimenean emandako filmak izango dira guztiak:

- ◆ *Harria herria* (2019ko Film Festibaleko Sail Ofiziala)
- ◆ *Nebula* (2019ko film labor onena)
- ◆ *Allein, Alone*: (2019ko Film Festibaleko Sail Ofiziala)
- ◆ *Climbing Blind* (2019ko eskalada film onena).

Herriko Antzokian izango da emanaldia, 21:30ean. Sarrerak 4 euro balio ditu. Nahi duenak Pirtintxun erosi ditzake sarrerak aurretik, baina egunean bertan ere txarteldegian erosteko aukera egongo da.



Jone Olaizola

Hesolaz hesola markatzen da bidea. Sokak ez du etenik, ezta bideak amaierarik ere.

Egunotan jakinarazi dute 22. Korrika datorren udaberrira atzeratuko dela. Pena eman digu denoi, erabakia ez da erraza izan, baina Korrikak kalea eta jendea behar ditu. Euskararen alde Euskal Herrian egiten den lasterketarik jendetsuena da. Lurralde guztiak zeharkatzen ditu, bi aste inguruan 2.300 kilometro ingurura iristen da, eta ez da inoiz geratzen; ez gabez, ez egunez, ezta eguraldi txarragatik ere. Beno, ez da inoiz gelditu izan orain arte, birus ahalguztidun honek geldiarazi gaituen arte.

1980. urteko azaroan egin zen lehen edizioa, eta ordutik 21 Korrika egin dira. Badakit lehendabiziko urte hartan Oñaititik abiatu zela lasterketa 9 egun beranduago Bilbora iristeko. Neguak, hilabete aurrerata, errepideak euriz eta elurrez bete zituen, eta hainbat mendate igotzeko arazoak izan ziren. Atzerapen apur batekin, baina iritsi zen Korrika Bilbora. Beste bitxikeria bat ere gertatu zen, baina, Oñaititik Bilbora lekukoaren barruan gordea behar zukeen mezua bidean galdu zen, eta lekukoa zabaldua-koan, ezustekoa! Ez zegoen mezurik. Ekitaldia ez eteteko Julen Kaltzadak AEKren diskurtsoa irakurri behar izan zuen. Hurrengo Korrikan irakurri zen galdutako mezu hura. Korrikaren pasadizoak.

Esan nahi dut oztopoak oztopo eta beranduago bada ere, 2022ko udaberrian indar handiagoz irtengo garela kalera, eta bitartean atzo-gaurretan Maialen Lujanbieren mezua gogoratu dut: "Hainbeste maite gaituzte erakundeek, alderdi politikoek, komunikabideek, korrika gabiltzala." Atzerapausorik ezin dugu eman, soka ezin dugu eten, euskararen bidea ez baita amaitzen. Klika! Sistema eragilean.



Eire Vila

"Atzerapausorik ezin dugu eman, soka ezin dugu eten, euskararen bidea ez baita amaitzen. Klika! sistema eragilean!"

LANA.....

Eskaerak

9 urte dituen ume bati gitarra klaseak emango dizkion pertsona bat behar da.

☎ 615 750 171 (whatsappez, mesedez)

Eskaerak

Adinekoak edo umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia handia daukat. ☎ 643 278 344

Adinekoak zaintzen lan egiteko prest. Baita eraikuntzan edo basoko mutil lanetan jarduteko ere. Arduratsua naiz.

☎ 662 415 709

Adinekoak zaintzeko, zerbitzari moduan jarduteko edo beste edozein lan egiteko prest nago. ☎ 610 668 183

Adinekoak zein umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Baita ospitalean dauden gaixoekin gaueetan egoteko ere. Esperientzia daukat. ☎ 641 359 024

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. Garbiketa lanak ere egiten ditut eta baita ospitalean dauden gaixoekin egon ere. Berehala lanean hasteko prest. ☎ 602 407 338

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago, eta baita etxeko lanak egiteko ere.

☎ 657 155 078

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Nahiago, etxeko langile moduan. ☎ 631 121 148

Neska euskalduna eta gaztea umeak zaintzeko prest. Goizez, arratsaldez zein egun osoan, orduka. Eskolako lanak egiten ere laguntzen diet umei. Esperientzia dut, haurtzaindegi batean lan egindakoa bainaiz eta gidabaimena ere badut.

☎ 688 697 204

Pertsona nagusiak zainduko nituzke, etxeko langile moduan. Esperientzia daukat.

☎ 604 183 037 (Teresa)

Adinekoak zaintzeko prest nago. Euskalduna naiz. ☎ 617 571 210

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 649 044 223

Umeak zainduko nituzke, baita ikastetxetik jaso edo hara eraman ere. Euskalduna naiz eta esperientzia daukat. ☎ 615 124 660

Umeak zaintzeko edo eskolara eramateko prest nago. Euskalduna naiz eta esperientzia daukat. ☎ 663 695 410

Gurekin bizitzeko etxeko langilea behar dugu, adinekoak zaintzeko. Euskalduna. Laguntza izango luke.

☎ 615 006 733

Adinekoak zaintzeko edo beste edozein lan egiteko prest nago. Ordutegi malgua daukat. ☎ 632 116 534

Adinekoak zaintzeko prest nago, orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 631 382 330

Adinekoak nahiz umeak zainduko nituzke, bai eta etxeko eta lokaletako garbiketa lanak egin ere. Adinekoak zaintzen eskarmentua daukat eta ziurtagiri soziosanitarioa ere badaukat. Berehala lanean hasteko prest nengoke.

☎ 688 739 536

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago, orduka. Euskalduna naiz eta titulazioa daukat. ☎ 626 490 986

Klase partikularrak emango nituzke. Lehen Hezkuntzako ikasleei ikasgai guztietan laguntzeko moduan naiz, eta LHtik gorako mailetan, bereziki, giza-zientzien alorreko gaiak emango nituzke. Euskalduna naiz.

☎ 639 635 939

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 631 980 531

GARAJEAK.....

Garaje itxia alokatzen dut Lekuederren, 4. solairuan. ☎ 660 042 159 (arratsaldez deitu, Beatriz).



LAGUNAK
colchoneria textil hogar

Neguko bilduma berria!
Etor zaitez ikustera.

**Outletaren azken egunak,
dendan bertan.**



Mila esker zuen konfiantzagatik!

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com



administradores

Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas
Instituto Vasco de Administradores de Finanzas

Gure komunitatean, derrama berezi baten bidez ordaindu dugun obra bat egin ondoren, komunitateak diru-laguntza jaso du. Prozesu horrek iraun duen artean, jabe batek etxebizitza saldu du. Une honetan, etxe-jabe ohia zegokion diru-laguntzaren zatia eskatzen ari da. Jakin nahi nuke zenbateko hori itzuli behar dugun, eta, hala bada, nori itzuli behar diogun.

Komunitateak diru-laguntzaren xedea onar dezake, esaterako, obra edo funtsen baterako erabiltzea, eta kasu horretan ez du jabea itzuli beharrik izango. Diru-laguntza banatzea erabakitzen badu, jabe berriak jaso behar du, ez ordainketa egin zuen zaharrak; izan ere, Jabetza Horizontalaren Legearen arabidea aplikatzearen ondoriozko eskubideak eta betebeharrak une bakoitzean titularra denari dagozkio. Jabetza eskualdatzen den unean, jabetza batean sortzen diren eskubide eta betebeharrak titular berriaren kargu edo onurarako dira.

Undorioa. Legedi bakar batean ere ez da jasotzen etxejabeen batzarrak banakako likidazioak edo diru-itzulketak egiteko betebeharra duenik. Urtean behin bildu eta urteko kontuak eta aurrekontuak onartzeko betebeharra du, une horretan egin daitezkeelako urteko likidazioak eta, baita, saldo positiboa bada pisu edo lokalaren titularrari itzultzea.



ROSA Ma PINTADO

Etxaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net



**ASESORIA
GO/R**

AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



ZORIONAK ZURI

Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak, **Libe**, zure 6. urtebetetzean. Mila kilo patxo, etxekoen partez. Asko maite zaitugu!



Zorionak, **Elia!** Ilgandean zure eguna! Bederatzi muxu potolo, etxekoen partez.



Eman bosteko hori! Ospatzeko irrikitan gaude! Zorionak, **Izar!**



Zorionak, **Gorka**, zure 9. urtebetetzean. Familiakoen, eta bereziki, Maia-ren partez, muxu handi bat.



Zorionak, **Xabi!** 6 urte! Muxu handi bat etxekoen partez.



Zorionak, **Zoe**, maite zaitugun guztion partez. Jarraitu horren berezia izaten! Beti pozik! Izugarri maite zaitugu, bihotza.



Zorionak, **Goiuri**, 10 urte bete dituzulako, eta **Xenki**, 9 urte beteko dituzulako. Muxu bana etxekoen partez.

SAMSUNG QE55Q65TAUXXC TELEBISTA



899 €

- 55" • A+ energia-mota • 4K • Smart TV
- QLED • Premium one Remote agintea barne

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@mlar.es

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

HONDAR AHOAK

TELESAIL BERRIA, AZAROAN

1

GURE FIKZIOA LEHENA

23 BARIKUA

20:30 Antzerkia: 'Zaldi urdina'. Herriko Antzokian.

24 ZAPATUA

10:00 Dolmenen Ibilbidea. Karakatetik Irukurutzetara arteko ibilbide gidatua. Izena emateko eskatu dute arduradunek, 690 720 264 telefonora deituta edo *karakate@galemys.com* helbide elektronikora idatzita. Azaroaren 1ean ere egingo dute ibilaldia.

11:00 eta 16:00 Elgoibarko Aurreku eta Soinu Zahar txapelketa. Herriko Antzokian.

25 DOMEKA

16:30 Antzerkia: 'Mari eta gailera fabrika'. Herriko Antzokian.

26 ASTELEHENA

18:00 Emakumeentzako jabekuntza tailerra: 'Gure gorputzak zaindu'. Berdintasun Sailak antolatuta, Loredi Salegik gidatuko du. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

29 EGUENA

20:30 Antzezlan: 'Metamorfosia'. Taupada Antzerki Taldeak aurkeztuko du, Aita Agirre Kultur Kafean.

30 BARIKUA

20:30 Kontzertua: 'Oingoan bai' zikloaren barruan, Amorante. Herriko Antzokian.

Zinea (Herriko Antzokian)



'La boda de Rosa'

24 zapatua: 19:00 / 22:15

25 domeka: 19:00

26 astelehena: 21:30

ORDU ALDAKETA, DOMEKAN

Asteburu honetan neguko ordutegian sartuko gara, eta ordua aldatu beharko da. Hortaz, domekan, urriaren 25ean, **03:00etan, ordubete atzeratu beharko** da ordularia.



Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK		Egunez: 09:00-22:00		Iluntzean: 20:00-22:00		Larunbatak: 9:00-14:00 (*)	
23 BARIKUA	24 ZAPATUA	25 DOMEKA	26 ASTELEHENA	27 MARTITZENA	28 EGUAZTENA	29 EGUENA	30 BARIKUA
Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola	Egunez Arriola	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez
Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola	Iluntzean Arriola	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Barrenetxea

*** Fernandez:**
Herriko Enparantza, 4
Garagartza (Mendaro)
943 756 142

*** Ibañez:**
Rekalde, 1 (Soraluze)
943 751 638

*** Oruesagasti:**
Kalebarren, 9 (Soraluze)
943 751 384

Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00
Barandela - Ziriako Agirre kalea, 4 (Eibar)
943 206 984



Maria Luz Izagirre Arrillaga

"Upai"

2020ko urriaren 11n hil zen, 88 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Mari Luz Izagirre Arrillaga

2020ko urriaren 11n hil zen, 88 urte zituela

**Orratzak memoria
zulatu zizuna,
izan zinena gure
dendako jostuna,
emakume indartsu
San Blas usainduna,
Mari Luz senidea,
Mari Luz laguna
oroimenean hariz
josita duguna.**



Rafael Segura Linero

2020ko urriaren 7an hil zen, 63 urte zituela.



Eskerrak eman nahi dizkiogu
Elgoibarko herri osoari,
jasotako maitasun-adierazpenengatik.





Eraikitzen:

AB ANTON BILBAO
GRUPO



- **Elgoibarko erdigunean.**
- **10 etxebizitza, 3 logelakoak. Logela guztiek kanpora ematen dute.**
- **Obra hasiera: 2020. urtearen amaiera.**

Informazio gehiago